Z

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburuordetza
Haur, Nerabe eta Familia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO
Viceconsejería de Juventud y Reto Demográfico
Dirección de Infancia, Adolescencia y Familias

ZAINTZEKO LANGILEAK KONTRATATZEKO ESKAERA

14 URTETIK BEHERAKO SEME-ALABA ANDINGABEAK ZAINTZEKO LANGILEAK KONTRATATZEAGATIKO DIRULAGUNTZA-ESKABIDEA

Eskura izan "Aurkeztu beharreko dokumentazioa" eranskina (8-9 orrialdeak) eskabidea betetzen duzun bitartean.

1. Nork aurkezten du eskaera?

☐ Nik aurkezten dut (zaintzaile bat kontratatu duen pertsona naiz).

☐ Nire ordezkariak aurkezten du (beste pertsona batek egiten du izapidea nire izenean).
(Irakurri 11. orrialdeko 9. puntua)

2. Laguntza jaso nahi duen pertsonaren datuak

Datuak **bat etorri behar dira, zehazki, l**aguntza eskatzen duen pertsonaren NANaren edo AIZren datuekin.

Izen-abizenak

Izena: _____

1.abizena: _____

2.abizena: _____

00791

Identifikazio-dokumentua

NAN _____ (Espainiako nazionalitatea baduzu)

AIZ _____ (Espainiako nazionalitaterik ez baduzu, atzerritarraren nortasun-zenbakia)

TIE _____ (Gainera, atzerritarraren nortasun-txartela baduzu, idatzi zenbakia)

3. Eskaera mota

☐ Nire lehen eskaera da, edo beste alaba edo seme bat izan dut.

Egon al zara gutxienez 59 egun, jarraitu beharrik ez dutenak, eszedentzian edo lanaldi-murrizketan?

☐ Bai (Joan 4. atalera)

☐ Ez (Itxaron eszedentzian edo murrizketan 59 egun bete arte)

☐ Aurretik ere eskatu dut laguntza alaba edo seme beragatik.

Lehenago ere laguntza eskatu baduzu, 1, 2, 3, 5, 10, 13 eta 15 atalak bete behar dituzu nahitaez.
Bete gainerako atalak aurreko eskaerarekin alderatuta datuetan aldaketarik gertatu bada.

Gutxienez 4 hilabete igaro dira emandako azken eskaera aurkeztu zenuenetik?

☐ Bai (Joan 4. atalera)

☐ Ez (Hurrengo galderari erantzun)

Zaintzilearen kontratazioa amaitu da eta zure azken eskaera da?

☐ Bai (Joan 4. atalera)

☐ Ez (Itxaron emandako azken eskaera aurkeztu zenuenetik gutxienez 4 hilabete igaro arte)

4. Eskatzailearen erroldatze-datuak

Bizilekua (adierazi non bizi zaren)

Udalerria: _____

Lurralde historikoa: ☐ Araba/Álava ☐ Bizkaia ☐ Gipuzkoa

Azken 12 hilabeteetan, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon zara? Denbora horretan, bertan bizi izan zara benetan eta etenik gabe?

☐ Bai

☐ Ez Kasu honetan, azken 10 urteetan, 5 urtez jarraian erroldatuta eta benetan bizitzen egon al zara Euskal Autonomia Erkidegoan? ☐ Bai ☐ Ez

Azken 10 urteetan udalerri batean baino gehiagotan erroldatuta eta horietan benetan bizitzen egon zara?

☐ Bai - Zehaztu non: _____

☐ Ez

5. Jakinarazpen eta komunikazioetarako datuak

Zein hizkuntzatan jaso nahi duzu informazioa? ☐ Euskara ☐ Gaztelania

Zein kanalen bidez? Aukeratu bietako bat:
Jakinarazpen-kanala aldatzen bada, espediente guztietan aldatuko da.

☐ Telematikoa

Identifikazio-ziurtagiri elektroniko bat eduki behar duzu (BakQ, Izenpe, NAN elektronikoa…). Administrazio-jakinarazpen bat duzunean, e-mail edo SMS bat iritsiko zaizu. www.euskadi.eus/familia web orrira jo eta “Nire karpeta”-ra sartu behar duzu.

Telefono mugikorra: _____ Posta elektronikoa: _____

☐ Posta arrunta

Kalea: _____

Zk.: _____ Solairua: _____ Letra: _____ P.K.: _____ Herria: _____

Udalerria: _____ Lurralde historikoa: _____

Telefono mug.: _____ E-mail: _____

6. Familia-unitatearen egoera

Familia ugariaren titulua duzu?

☐ Bai ☐ Ez

Euskadiko guraso bakarreko familien erroldan inskribatutako guraso bakarreko familia osatzen duzu?

☐ Bai ☐ Ez

Zure familia-unitateko kideren batek aitortua al du % 33ko desgaitasuna edo handiagoa?
(Irakurri 9. orrialdeko 16. puntua)

☐ Bai - adierazi nork edo nortzuk _____ ☐ Ez

_____

Zure familia-unitateko kideren batek aitortua al du mendekotasunik? (Irakurri 9. orrialdeko 17. puntua)

☐ Bai - adierazi nork edo nortzuk _____ ☐ Ez

_____

Zure familia-unitateko kideren bat genero-indarkeriaren biktima edo sexu-indarkeriaren biktima da?

☐ Bai (Irakurri 9. orrialdeko 13. puntua) ☐ Ez

7. Beste gurasoaren datuak

Laguntza eskatzen duen alabak edo semeak zutaz gain beste guraso, tutore edo harreragilerik ba al du?

☐ Bai (Bete atal hau) ☐ Ez (Ez bete atal hau eta joan 8. atalera)

Datuak **bat etorri behar dira, zehazki**, laguntza eskatzen duen pertsonaren NANaren edo AIZren datuekin.

Izen-abizenak

Izena: _____

1.abizena: _____

2.abizena: _____

Identifikazio-dokumentua

NAN _____ (Espainiako nazionalitatea baduzu)

AIZ _____ (Espainiako nazionalitaterik ez baduzu, atzerritarraren nortasun-zenbakia)

TIE _____ (Gainera, atzerritarraren nortasun-txartela baduzu, idatzi zenbakia)

Pertsona hau zure egungo bikotekidea da?

☐ Bai (Joan 9. atalera) ☐ Ez (Erantzun hurrengo galderari)

Laguntza eskatzen duen alabaren edo semearen zaintza duzu?

☐ Bai, esklusiboa (Irakurri 9. orrialdeko 12. puntua eta, ondoren, joan 8. atalera)

☐ Bai, partekatua (Irakurri 9. orrialdeko 12. puntua eta, erantzun hurrengo galderari)

Adingabea beste gurasoarekin dago erroldatuta?

☐ Ez (Joan 8. atalera) ☐ Bai - sartu bizi den helbidea

_____

8. Zure ezkontidearen edo zurekin ohikotasunez bizi den bikotekidearen datuak

Bikotekidearekin bizi zara edo ezkontidea duzu? Adierazi zure ezkontidearen datuak, **elkarrekin bizi ez arren**.

☐ Bai (Bete atal hau) ☐ Ez (Ez bete atal hau eta joan 9. atalera)

Datuak **bat etorri behar dira, zehazki**, laguntza eskatzen duen pertsonaren NANaren edo AIZren datuekin.

Izen-abizenak

Izena: _____

1.abizena: _____

2.abizena: _____

Identifikazio-dokumentua

NAN _____ (Espainiako nazionalitatea baduzu)

AIZ _____ (Espainiako nazionalitaterik ez baduzu, atzerritarraren nortasun-zenbakia)

TIE _____ (Gainera, atzerritarraren nortasun-txartela baduzu, idatzi zenbakia)

(**) Irakurri 10. orrialdeko 22. puntua

9. Familia-unitatean bizi diren adingabeen datuak

Seme-alabaren bat **atzerrian jaio bada**, irakurri 9. orrialdeko 20. puntua

Etxebizitza berean bizi diren eta erroldatuta dauden adingabeak, baldin eta zaintza (esklusiboa edo partekatua) honako hauen esku badago: zu (laguntza jaso nahi duen pertsona), zure ezkontidea edo ohiko moduan berarekin bizi den bikotekidea, edo erregistro ofizial batean inskribatuta dagoen izatezko bikotekidea, elkarrekin bizi diren ala ez.

(Erroldatzea ez da beharrezkoa zaintza partekatuaren eta genero-indarkeriaren biktimen kasuetan)

Izen-abizenak	NAN/AIZ	Jaioteguna	Udalerria eta probintzia (Jaiotza-ziurtagirian jasota dagoen bezala)
			☐ Atzerrian jaioa
			☐ Atzerrian jaioa
			☐ Atzerrian jaioa

10. Diruz lagundu daitekeen jardueraren datuak

Kontratatutako pertsonaren edo pertsonen datuak

Izen-abizenak	NAN	Alta-data	Baja-data

Laguntza eskatzen den kontratazio-aldiak

Laguntza eskatu nahi duen aldia, eskaera egin baino lehenagokoa.

1. epealdia: Hasiera-data: _____ Amaiera-data: _____

2. epealdia: Hasiera-data: _____ Amaiera-data: _____

3. epealdia: Hasiera-data: _____ Amaiera-data: _____

4. epealdia: Hasiera-data: _____ Amaiera-data: _____

(**) Irakurri 10. orrialdeko 21. puntua

11. Familia-unitateko pertsonen lan-datuak

Langileren bat lanerako **ezintasun** iraunkor absolutuan, erabateko ezintasun iraunkorrean edo **baliaezintasun handian** badago, irakurri 8. orrialdeko 1. puntua.

Adierazi lan egiten duzun enpresaren datuak

IFK/IFZ:_____ Izena: _____

Sektorea: ☐ Pribatua ☐ Kooperatiba sozietatea ☐ Etxeko langilea - nekazaritzako araubidea

☐ Publikoa ☐ Autonomoen araubidea

☐ Lanerako ezintasun iraunkor absolutua, osoa edo baliaezintasun handia

Adierazi beste gurasoak lan egiten duen enpresaren datuak

Epai judizial bidez berretsitako banantze edo dibortzioaren kasuan, adierazi ohiko moduan berarekin bizi den ezkontidearen edo bikotekidearen datuak, edo EAEko erregistroan inskribatutako izatezko bikotekidearen datuak, elkarrekin bizi diren ala ez kontuan hartu gabe.

IFK/IFZ:_____ Izena: _____

Sektorea: ☐ Pribatua ☐ Kooperatiba sozietatea ☐ Etxeko langilea - nekazaritzako araubidea

☐ Publikoa ☐ Autonomoen araubidea

☐ Lanerako ezintasun iraunkor absolutua, osoa edo baliaezintasun handia

12. Bankuaren datuak

Garrantzitsua da zuri lotutako banku-kontua laguntzaren ordainketa jaso nahi duzun hura den egiaztatzea. Laguntza eskatzen duen pertsonak kontuaren titularra izan behar du. (Irakurri 8. orrialdeko 2. puntua)

■ **Ziurtagiri elektronikoa baduzu:**

- Sar zaitez Eusko Jaurlaritzaren Hirugarrenen Erregistro Telematikoan.
- Egiaztatu lotutako kontua zuzena dela eta, bestela, egin beharreko aldaketak egin.
- Zure kontua erregistroan agertzen ez bada, alta eman beharko diozu.

■ **Ziurtagiri elektronikorik ez baduzu:**

- Zure bankua Kutxabank, Banco Santander, Laboral Kutxa, Caixabank, BBVA, Caja Rural de Navarra edo Abanca bada:
  - Bete eta aurkeztu C eranskina-"Hirugarrenaren alta" (bankuaren sinadura eta zigilua ez dira beharrezkoak D atalean-bankuaren adostasuna).
- Gainerako bankuak edo pasaportearekin identifikatu baldin bazara:
  - Bete eta aurkeztu C eranskina-"Hirugarrenaren alta" (bankuaren sinadura eta zigilua ez dira beharrezkoak D atalean-bankuaren adostasuna).
  - Aurkeztu, gainera, banku-titulartasunaren ziurtagiria.

13. Baimenak

☐ Baimena ematen dut, beharrezkoa bada, galdetegi bat bidaltzeko, emandako dirulaguntzak nire familia-, lan- eta gizarte-bizitzan izan duen eragina ebaluatzeko.

☐ Familia-politiken, haurren edo gazteen arloan inkestak, ikerketak edo azterlanak egiteko nire harremanetarako datuak erabiltzeko baimena ematen dut.

☐ Laguntza hauek kudeatzen dituen sailari baimena ematen diot familia-politiken, haurren edo gazteen arloko ekimen, proiektu, laguntza edo ekitaldi berriei buruzko informazioa bidaltzeko.

☐ Baimena ematen dut, eskabide honetan jakinarazpen-helbide gisa nire bizilekua adierazi badut, eta erroldako ondorengo elkarreragingarritasun-zerbitzuetan helbide aldaketa bat egiaztatzen bada, etorkizuneko posta-jakinarazpenak automatikoki bidaltzeko helbide berrira.

14. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak "Familientzako laguntzak eta dirulaguntzak" izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira.

- Arduraduna: Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritza, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.
- Helburua: Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak eta seme-alabak dituzten familientzako laguntzak kudeatzea.
- Lege oinarria: Interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzearen alde egindako eginkizuna betetzeko beharrezko tratamendua.
- Hartzaileak: Ez da aurreikusten datuak komunikatzea.
- Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehatua kontsulta dezakezu gure web orrian (www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/064300-capa2-es.shtml).

Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES.
- Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa: www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673.

15. Datu pertsonalak kontsultatzea eta egiaztatzea

Zer datu kontsultatuko dira?

Laguntzak kudeatzen dituen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak ofizioz kontsultatuko ditu honako datu hauek (39/2015 Legearen 28. artikulua):

1. Eskatzailearen, egungo ezkontidearen/bikotekidearen eta beste guraso/tutore/hartzailearen identifikazioa eta zaintzen duen pertsonaren identifikazioa
2. Errolda indibiduala
3. Errolda historikoa
4. Bizikidetza-unitatearen errolda
5. Laguntza eskatzen duen semearen edo alabaren eta familia-unitateko gainerako adingabeen jaiotza.
6. Lan-bizitzaren txostena
7. Familia ugariaren egiaztagiria
8. Familia-unitateko pertsonen ezgaitasuna
9. Familia-unitateko pertsonekiko mendekotasuna (adingabeek ziurtagiria aurkeztu beharko du)
10. Guraso bakarreko familien erregistroan inskripzioa
11. Eskatzailearen, bere ezkontide edo bikotekide eta beste gurasoaren errenta-datuak (PFEZ) Euskadiko Foru Ogasunetan:
    - Dagokion dokumentazioa aurkeztu behar duzu, baldin eta:
      - Kontsulta egin ondoren beharrezko dokumentazioa lortzea ezinezkoa bada. (Irakurri 8. orrialdeko 10. puntua)
      - Behin betiko likidatutako azken errenta-aitorpena EAEtik kanpo aurkeztu duzu.
      - Aurkeztu izan ez bazenu, EAEtik kanpo aurkeztu beharko zenukeen.
      - Pasaportearekin identifikatzen bazara.
      - Identifikazio-dokumentuan aldaketak izan badituzu azken 3 urteetan (AIZetik NANera, grafia, abizenen ordena...).
12. Bizilekuaren eta bizikideen datu historikoak (INE)
13. Egungo bizikidetzari buruzko datuak (INE)

Datuak kontsultatu egingo dira, zuk (eskatzailea) modu arrazoituan aurka egin ezean: https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/064300-capa2-eu.shtml

Aurka eginez gero edo, kontsulta egin ostean, dokumentazioa lortu ezin bada, eskatzaileak berak aurkeztu beharko du dokumentazio hori (ikusi 8. eta 9. orrialdeak).

16. Erantzukizunpeko adierazpena eta eskaeraren sinadura

Adierazpen **guztiak nahitaez bete behar** dituzu

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DUT

Aukeratu bi aukera hauetako bat:

- ☐ Ez dut jasotzen Administrazio Publiko batek helburu bererako emandako beste laguntzarik.
- ☐ Helburu bererako laguntza hau ari naiz jasotzen_____€,_____ administrazioaren aldetik,_____ helbururako.

☐ Beste guraso, tutore edo harreragilea baldin badago, edo bikotekidea edo ezkontidea baldin badagojakinaren gainean da eta baimena ematen du eskabide honetan adierazitako datuak kontsultatzeko.

☐ Nire bizikidetza-unitateko kideei edo inskribatutako izatezko bikotekideari, bizikide izan ala ez, jakinarazi diet goian adierazitako datuak kontsultatuko direla eta haien baimena lortu dut.

☐ Ez didate zigorrik ezarri (ez zigor penalik, ez administrazio-zehapenik), eta ez nago dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzea legez eragozten didan beste ezein egoeratan.

☐ Ez nago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak emandako dirulaguntzekin lotutako inolako itzultze- edo zehapen-prozeduratan, edo prozedura hori ez dago betearazpen-aldian.

Horrelako itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean egonez gero, adierazi zein den (espediente-zenbakia):

_____

☐ Ez nago Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako gainerako ezein egoeratan, artikulu horretako e) letran ezarritakoa izan ezik.

☐ Indarrean dauden araudian ezarritako baldintzak betetzen ditut.

☐ Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, bai eta aurkezten dudan dokumentazio guztia ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

☐ Guraso bakarreko familia bat osatzen badut (Euskal Autonomia Erkidegoko guraso bakarreko familien erroldan inskribatua), eta ez naiz berriro ezkondu eta ez naiz izatezko bikote gisa agertzen EAEko izatezko bikoteen erregistroan.

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den edozein datu edo informazio zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, deklaratutakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea edo jarduera gauzatzen jarraitzea gertaera horien berri izaten den unetik aurrera, hargatik eragotzi gabe egon litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

ESKATZEN DUT

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko laguntza ematea.

(Tokia) _____, (data) _____

Eskatzailearen sinadura

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK		
BETI aurkeztu behar duzun dokumentazioa:		
Egiaztatzeko	**Aurkeztu beharreko dokumentazioa**	**Non lortu**
1. Lan-egoera	**Besteren konturako langileak:** • Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorra: Gizarte Segurantzaren kotizazio-datuen txostena (GGI), honako hauek jasotzen dituena: kontratu mota, seme-alabak zaintzeagatiko murrizketa-ehunekoa (halakorik balego) ohiko lanaldiari eta lanaldia murrizten den aldiei dagokienez. • Etxeko Langileentzako Araubide Berezia/Nekazaritzako Erregimen Berezia: etxeko langilea edo nekazaritzako langilea dela egiaztatzen duen ziurtagiria, kontratu mota, murrizketaren ehunekoa eta lanaldi-murrizketako aldiak (halakorik balego). • Kooperatiba-sozietateak: bazkide dela egiaztatzen duen ziurtagiria, kontratu mota, lanaldi-murrizketaren ehunekoa, lanaldi-murrizketaren edo eszedentziaren aldiak (halakorik balego) eta horien arrazoia. **Norberaren konturako langileak (autonomoak):** • Autonomoei Gizarte Segurantzan egindako kotizazioaren ordainagiriak. **Ezintasun iraunkor absolutua, lanerako ezintasun osoa edo ezintasun handia aitortuta izatea:** • Administrazio-ebazpena.	Enpresa A eranskina Enpresa Banku-erakundea Administrazio eskuduna
2. Hirugarrenen alta	Hauetako bat: • Hirugarrenen erregistro telematikoan zure kontua inskribatzea. • Hirugarrenen alta-fitxa, bankuko datuekin (beharrezkoa bada, aurkeztu banku-titulartasunaren ziurtagiria).	Eusko Jaurlaritzaren hirugarrenen erregistro telematikoa C eranskina eta banku-erakundea
3. Gizarte Segurantzari ordainketa	Enplegu-emailearen (eskatzailea) banku-ordainagiriak, gutxienez likidazio-aldia eta kontratatutako pertsonaren izena zehaztuta.	Banku-erakundea
LEHEN ESKAERAN aurkeztu behar duzun dokumentazioa edo **ZAINTZAILE BERRIRIK** dagoen**.**		
4. Kontratatutako pertsonaren Gizarte Segurantzan alta	• Lan-kontratuaren oinarrizko kopia. • Gizarte Segurantzan alta-agiria	Gizarte Segurantza
Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritzak administrazio eskudunengandik informazioa eskuratzeari **AURKA EGITEN BADIOZU BAKARRIK** aurkeztu behar duzun dokumentazioa (aurka ez bazaude, ez duzu aurkeztu beharrik):		
Egiaztatzeko	**Aurkeztu beharreko dokumentazioa**	**Non lortu**
5. Identitatea	• Eskatzailearen, beste guraso, tutore edo harreragilearen eta ezkontidearen edo bikotekidearen NAN edo AIZ.	Polizia-etxeak edo enbaxadak
6. Familia-erroldatzea	• Familia-erroldaren ziurtagiria, familia-etxebizitzan bizi diren pertsona guztiak barne hartzen dituena, eta eskatzailea laguntza eskatzen duen alabarekin edo semearekin Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta dagoela egiaztatzen duena, bai eskabidea egiten den unean eta baita diruz lagundu daitekeen jarduera osoan zehar ere.	Udaletxeak
7. Erroldatze historikoa	• Errolda-ziurtagiria, eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan modu jarraituan erroldatuta egon dela egiaztatzen duena, eskaera egin aurreko urtean edo eskaera egin aurreko 10 urteetan 5 urtez jarraian.	Udaletxeak
8. Filiazio-harremana familia-unitateko adingabeekin	Hauetako bat: • Familia-liburua • Jaiotza-ziurtagiria	Erregistro zibila
9. Lan-egoera	• Lan-bizitzari buruzko txostena	Gizarte Segurantza
10. Zerga-datuak	Hauetako bat: • Behin betiko likidatutako azken errenta-aitorpena. • Azken zergaldiko PFEZri egozteko diru-sarreren ziurtagiria eta salbuetsita edo salbuetsita dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria edo ziurtagiri baliokidea.	Foru-aldundiak, Zerga Agentzia edo beste agintari eskudun batzuk

BAKARRIK HONAKO EGOERA HAUETAKO BATEAN bazaude aurkeztu behar duzun dokumentazioa:		
Egiaztatzeko	**Aurkeztu beharreko dokumentazioa**	**Non lortu**
11. Ordezkari bidez jarduten duzu	Hauetako bat: • Ordezkaritza-baimena • Ahalordetzeen erregistro elektronikoan inskribatze-agiria.	E Eranskina Ahalordetzeen erregistro elektronikoa
12. Banantzeak edo dibortzioak: zaintza eta jagoletza	Hauetako bat: • Zaintza eta jagoletza esleitzen dituen ebazpen judiziala. • Guraso eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzarmena, epai judizial bidez berretsia.	Epaitegiak
13. Genero-indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren biktima	Hauetako bat: • Babes-agindua. • Kondena-epaia. • Fiskaltzaren txostena. • Administrazio-egiaztapena Ez duzu zure seme-alaben zaintza eta jagoletzari buruzko dokumentaziorik aurkeztu behar, egoera hori egiazta badezakezu.	Epaitegiak Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuak
14. Familia ugaria	Hauetako bat (erakunde honek bere datuak kontsultatzearen **aurka bazaude soilik**): • Familia ugariaren egiaztagiria • Familia ugariaren txartela	Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritza
15. Guraso bakarreko familia	• Euskadiko guraso bakarreko familien erroldako inskripzio-ziurtagiria.	Eusko Jaurlaritza
16. % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen familia-unitateko kideren bat	• Indarrean dagoen desgaitasun-ziurtagiria (erakunde honek bere datuak kontsultatzearen **aurka bazaude soilik**).	Foru-aldundiak edo beste organo eskudun batzuk
17. Mendetasun-egoeran dagoen familia-unitateko kideren bat	• Indarrean dagoen administrazio-ebazpena, mendetasun-egoera egiaztatzen duena (**adingabeak bakarrik** edo erakunde honek bere datuak kontsultatzearen **aurka zaudenean bakarrik**).	Foru-aldundiak edo beste organo eskudun batzuk
18. Adopzioa edo tutoretza	• Adopzioaren edo tutoretzaren inskripzio-ziurtagiria.	Erregistro Zibila
19. Adopzio edo harrera zaintza	• Adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren administrazio-ebazpena.	Foru-aldundiak
20. Atzerrian jaiotako seme-alabak	• **Europar Batasunetik kanpo:** jaiotza-ziurtagiria edo antzeko agiria (euskarara edo gaztelaniara itzulia), behar bezala legeztatua, bai Hagako Apostillaren bidez, bai Espainiak atzerrian dituen enbaxada edo kontsulatuen bidez, bai Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez (La Haya hitzarmena sinatu ez duten herrialdeentzat). • **Europar Batasuna**: jaiotza-ziurtagiria, inprimaki normalizatu eleaniztunarekin batera.	Atzerriko agintaritza eskuduna, edo Espainak atzerrian dituen enbaxadak edo kontsulatuak, edo Espainiako Kanpo Arazoetako Ministerioa
21. Pasaportearekin / TIErekin identifikatzea	• Pasaportea edo atzerritarren identifikazio-txartela	Enbaxadak

Eranskinak hemen daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/informazioa/lana-eta-familia-bateragarri-egiteko-laguntzak/web01-a2famil/eu/
Hagako Hitzarmena sinatu duten herrialdeak: https://www.hcch.net/es/states/hcch-members

Eskabideak aurkezteko lekua

Eskaera erakunde hauetan aurkez daiteke:

Kanal elektronikoa/telematikoa

Kasu honetan, identifikazio-bide bat izan behar duzu laguntza kanal honen bidez eskatzeko. Identifikazio elektronikorako baliabideei buruzko informazio gehiago:
https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/

Sartu webgune honetan:
https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/web01-tramite/eu/

Aurrez aurre

Opciones para presentar su solicitud:

- Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoak - **ZUZENEAN**
  - Ramiro de Maeztu, 10 behea - 01008 Vitoria-Gasteiz
  - Kale Nagusia, 85 - 48011 Bilbao
  - Andia, 13 - 20004 Donostia-San Sebastián

  Aurretiko hitzordua:
  - Online: https://www.euskadi.eus/web01-ejqmati7/eu/v7/zuzeneanwebbooking/#/?lang=eu_es
  - Teléfonoa: 945 01 90 00

- Honako **erakunde hauen erregistroetan** (Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikulua):
  - Udalak – Toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.
  - Autonomia-erkidegoetako administrazioak.
  - Estatuko Administrazio orokorra.
  - Sektore publiko instituzionala.

  Jarraibide hauei jarraitu behar diezu:
  - Eskabidea beteta eta beharrezko dokumentuak eramatea.
  - Adierazi kode honetara zuzentzeko:
    - Erregistro-erakundea: **O 00043405** (lehen karakterea O letra larria da)
    - Izapidetze unitatea: **A16050216**

- **Posta**-bulegoetan:
  - Eskabidea eta beharrezko dokumentazioa beteta eraman.
  - Eskaera eta beharrezko dokumentuak digitalizatzeko eskatu.
  - Adierazi ORVE kode honetara zuzentzeko:
    - **A 16050216 – Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiaren Saila. 00791 erreferentzia.**

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak zehazten dituen gainerako lekuetan.

Laguntzei buruzko bidezko informazioa:
- Teléfonoa: ZUZENEAN (012 o 945 01 80 00)
- Email: ayudasfamilia@euskadi.eus